

**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA FISKALA**

1. ARTIKULUA:

Ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauak 10. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat, Udalerri honetan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari aplikatu dakizkiokeen haztapen-koefizientea, koefiziente bakarra eta indizeen eskala hurrengo artikuluek xedatzen duten moduan finkatzen dira.

2. ARTIKULUA:

Zergaren tarifak gutxieneko udal-kuotak finkatzen ditu. Horiek gehitu egingo dira eta, horretarako beraien gainean haztapen-koefizientea aplikatuko da subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren arabera. Hurrengo koadroari jarraiki zehaztuko da:

Eragiketen bolumena eurotan	Koefizientea
2.000.000tik 6.000.000ra bitartean	1,20
6.000.000,01etik 10.000.000ra bitartean	1,22
10.000.000,01etik 50.000.000ra bitartean	1,24
50.000.000,01etik 100.000.000ra bitartean	1,27
100.000.000 baino gehiago	1,30
Eragiketa bolumenik gabe	1,25

3. ARTIKULUA:

Udalerri honetan gauzatzen diren jarduera guztietarako, aurreko artikuluan araututako koefizientea aplikatu ondoren handitutako kuotak 2,20ko koefiziente bakarra aplikatuz handituko dira.

4. ARTIKULUA:

1.- Hurrengo artikuluko indizeen eskala aplikatzearen aurrez ikusietarako, bide publikoak 6 kategoria fiskaletan sailkatzen dira.

2.- Ordenantza honen eranskin modura indize alfabetikoari jarraiki udalerririk dituen bide publikoak aipatzen dira eta bakoitzari dagokion kategoria fiskala adierazten da.

3.- Indize alfabetikoak agertzen ez diren bide publikoak azken kategoriakotzat joko dira. Aipatu kalifikazioa izango dute Udalbatzarrak kategoria fiskala ematearen erabaki hartu, bide publikoen indize alfabetikoan sartu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte.

5. ARTIKULUA:

Ordenantza Fiskal honen 2. eta 3. artikuluetan aipatutako koefizienteak aplikatzeagatik gehitu diren kuotei buruz, eta jarduera ekonomikoa gauzatzen den bide publikoaren kategoriarik erreparatuz, hurrengo indizeen eskala ezarriko da:

Bide Publikoaren Kategoria	Indize aplikagarria
Lehenengoa	2,00
Bigarrena	1,89
Hirugarrena	1,53
Laugarrena	1,28
Bosgarrena	0,92
Seigarrena	0,51

6. ARTIKULUA:

Baliogabetua.

AZKEN XEDAPENA:

Ordenantza Fiskal honen aldaketa 2018ko irailaren 25ean onartu zen behin betiko (2018ko abenduaren 10ean argitaratu zen BAOn, 236. zk.), 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Udalerriko kale, plaza, paraje eta zonaldeen kategorien araberrako sailkapen-zerrenda Jarduera Ekonomikoen Zergaren ondorioetarako.

LEHEN KATEGORIA:

- Bilbotik Portugaleterako bidea eta Nerbioi ibaiaren artean dagoen Industrialdea.
- Ibarzaharran kokatuta dagoen industrialdea, Galindo Ibaia, Ballonti Errekastoa eta Valle de Trapaga Trapagaraneko banalerroaren artean dagoena, Barakaldotik Valle de Trapaga-Trapagaranera doan errepidea barne.
- Galindoko padurak.
- Galindo Ibaiaren Padurak eta Vega Nuevan kokatutako industrialdea Galindo ibaia eta Ballonti Errekastoaren artean dagoena.

BIGARREN KATEGORIA

- Espainiako Plaza.
- Las Llanas Zumarkaleko 1etik 27ra eta 2tik 28ra (biak barne).
- Nicolás Esparza kaleko 1 zenbakia.
- Ramón y Cajal kaleko 2 zenbakia.
- Villar y Villate kalea.
- Manuel Andrés kaleko 1etik 17ra eta 2tik 12ra.
- Galindo Bidea kaleko 1etik 13ra eta 2tik 12ra.
- Asunción Menéndez kalea.
- Conde Valmeseda plaza.
- San Pedro plaza.
- Vicente Blasco Ibáñez kalea.
- Bide Nagusia kaleko 1etik 29ra eta 2tik 8ra.
- Resurrección María de Azkue kaleko 1etik 7ra eta 2a.
- Aizpuru kaleko 2tik 14ra eta 1etik 7ra.
- San Diego kaleko 2tik 14ra.
- Iberia kaleko 1etik 21era eta 2tik 16ra.
- Txabarri kaleko 85a.
- Los Baños kaleko 1etik 11ra.
- Lorenzo Llona kalea.
- Iparragirre kalea.
- Pablo Sorozábal kaleko 1 eta 2a.
- Amézaga Bidea kaleko 2tik 8ra eta 3tik 5era.
- Pio Baroja kaleko 1a.
- Antonio Trueba kaleko 2a.
- Buena Vista kaleko 2tik 6ra.
- La Protectora Auzunea.
- La Humanitaria Auzunea.

HIRUGARREN KATEGORIA

- Ramón y Cajal kalea, 2a izan ezik.
- Nicolás Esparza kalea, 1a izan ezik.
- Doctor Ferrán kalea.
- Askatasuna kalea.
- Amézaga Bidea kaleko 7tik bukaerara.
- Juan Tomas de Gandarias kalea.
- Antonio Trueba kalea, 2a izan ezik.
- Pablo Sarasate kalea.
- Santiago Grassa kalea.
- Isaac Peral kalea.

- Juan de la Cierva kalea.
- Atanasio Goicoechea kalea.
- Buenavista kaleko 1etik 5era eta 8tik 20ra.
- Bide Nagusia kaleko 39tik 55era.
- Doctor Fleming kalea.
- Iberia kaleko 18tik 41era.
- Abenduaren 25a kalea.
- Txabarri kaleko 8tik 32ra eta 63tik 113ra, 85a izan ezik.
- Hiru Kontzejuen Plaza
- Sotera de la Mier kalea.
- Pablo Sorozábal kaleko 4tik 10era eta 3tik 7ra.
- Los Baños kaleko 8tik 13ra eta 13tik 63ra.
- La Galana kalea.
- Antonio Machado kalea.
- Arturo Campión kalea.
- Alfredo Marín kalea.
- Resurrección María de Azkue kaleko 9tik 13ra.
- Pardo Bazán kalea.
- José Roda kalea.
- Julián Gayarre kalea
- Miguel Servet kalea.
- Marcos Grijalvo kalea.
- Juan Crisóstomo Arriaga kaleko 1etik 11ra.
- Zumalakarregi kalea.
- Alberto Arrue kalea.
- José Miguel de Barandiarán kalea.
- Nicolás Ormaechea kalea (Orixe).
- Diego Mazquiarán kalea.
- Marques de la Fidelidad kalea.
- José María de Usandizaga kalea.
- Ignacio Zuloaga kalea.
- Felix María de Samaniego kalea.
- Pio Baroja kaleko 3tik 7ra.
- Las Llanas Zumarkaleko 10etik 22ra eta 29tik 35era.
- Rafael Barco kalea.
- Galdames dartsena eta Txabarri kalearen artean kokatutako lursailak.
- Avellaneda Auzunea.
- La Unión Auzunea.
- Vista Alegre Auzunea.
- Amador Palma kalea.
- Concepcion Arenal kalea.
- Menéndez Pelayo kalea.
- Alonso Ercilla kalea.
- Manuel Andrés kaleko 14a eta 16a.
- Mariana Pineda kalea.
- Blas de Otero kalea.
- El Sol kalea.
- Isaac Albeniz kalea.
- Juan de la Cierva kalearen atzeko aldea.
- Miguel de Cervantes kalea.
- Autonomia kalea.

LAUGARREN KATEGORIA.

- Aceta kalea.
- Miramar Auzunea.
- Nuestra Señora del Carmen Auzunea.
- Miguel de Unamuno kalea.

- Anunciación kalea.
- Francisco Llaseras kalea.
- La Paz Auzunea.
- Txabarri kaleko beste kategorietan sailkatu gabeko zenbakiak.
- Bide Nagusia kaleko 60tik 90era eta 75etik 83ra.
- Juan XXIII kalea.
- Bizkaia kalea.
- La Aurora Auzunea.

BOSGARREN KATEGORIA

- Carranza kalea.
- Oquillo kalea.
- La Bariega kalea.
- Federico García Lorca kalea.
- Txabarri kaleko 1etik 61era.
- Rivas kalea.
- Vega Nueva kalea.
- San Ignacio kalea.
- Juan Crisóstomo Arriaga kaleko 2tik 6ra.
- Galindo Bidea kaleko 23a.
- Maiatzaren Lehena Auzunea.

SEIGARREN KATEGORIA

- Las Camporras parkea
- Markontzaga
- Hiltegirako jaitsiera.
- Portopin.
- La Benedicta Parkea.
- Trianoko mendi-hegalak.